

Intxaurreondo

Amara Zaharra

Monseko tenis pistak estaliko dituzte

Intxaurreondo Internacional kirol elkarteak, 1990ean sortu zen, eta poliki-poliki handituz doa. Mons kiroldegia du egoitza eta elkartearen helburu nagusia tenis pistak estaltzea da.

Unai Zubeldia

Intxaurreondo Internacional kirol elkarte gaztea da baina, sortu zenetik hona egindako lana fruituak ematen ari da. Elkarteak presidente Javier Donamariak adierazi digunez, "kirol elkarteak bost atal ditu: futbola, saskibaloia, areto futbola, tenisa eta padela. Gainera, arku-tiroketa ere jartzekotan gara".

Elkarteak auzotarrei kirola egiteko aukera ugari eskaini ohi dizkie, eta Javierren hitzetan, "jada 426 bazkide ditugu, eta jendea gero eta gehiago gerturatzen da Mons kiroldegira. Udan gainera, auzokoez gain, kanpotarrak ere etortzen dira eta hainbat txapelketa ere antolatu ohi ditugu".

Auzotarren erantzuna ona izan arren, berrikuntzei ez dizkiete ateak itxi nahi. "Tenis pistak estali nahi ditugu, eta azkenean, ekimen ugariaren ostean, hilaren 22an egitekoa den bileran epeak, gastuak... zehaztuko ditugu. Urte

amaierarako edota 2003ko urtarilerako egitasmoak martxan behar luke", azaldu digu Javierrek.

Dena den, teniseko pistak estaltzeko proiektuak aurrera egin duen arren, igerilekuaren proiektua geldirik da: "Suediatic proiektu dotore bat iritsi zitzaigun igerilekua egiteko. Dena dela, auzoan ez dugu lekurik proiektu horiek gauzatzeko eta, gainera, oso garestiak dira. Oraingo behintzat, ezinezkoa da igerilekua eraikitzea", onartu du Javierrek.

Arazoak arazo, kirol taldea gogor ari da lanean, eta presidentearen hitzetan, "aurten taldea Egiako J.F. Martin Espainiako areto futboleko selekzioan izan da. Gainera, tenisean altxorrek ditugu: Marina Ruiz de Gauna, Haitz Erro, Igor Aranguren eta Javier Osua, esaterako. Aurten Espainiako Txapelketan izan dira Euskadiko taldearekin". Harrobi bikaina, beraz, elkartearena.



Auzotarrentzako ordezkoko aparkalekuak

Amara Zaharra birgaitzeko obrak direla eta, aparkaleku gutxiago daude inguruetan. Arazoa arintzeko, auzotarrek beste gune batean aparkatu ahalko dute.

Autoa uzteko leku gutxiago dago orain

Aparkaleku arazoak konpontzeko, Udaleko Trafiko Sailak TAO txartela duten auzotarrei TAO 1,2 zonaldeetan aparkatzea baimendu die, hau da, Askatasunaren hiribidearen eta Araba parkearen arteko kaleetan. Hain zuzen ere, auzotarrek San Marzial, San Martin, Hondarribia, Bergara, Loiola, Arrasate, Etxaide, Prim eta Urbieta kaleetan aparkatu ahal izango dute. Izan ere, kontuan hartu behar da Errege Katolikoen ka-

leko obren eraginez Moraza eta Sanchez Toca kaleak itxita daudela.

Bestalde, azken asteetan trafiko aldaketak egin dira auzoan. Pedro Egaña norabidez aldatu dute eta Easo plazako Eusko Tren aurreko errepideak norabide bikoitza du orain. Amara kalea ere itxi egin dute Easo plazan eta ez dago bertatik San Rokera igotzerik. Aldaketok duela bi aste egin ziren arren, oraindik ohikoa da Autonomia kalean autoak eta atzera ez aurrera ikustea, eta auto ilarak ohikoa dira.